

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Lekeitioko Udala

Ayuntamiento de Lekeitio

2012





AURKIBIDEA / ÍNDICE

0. LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA	
PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	11
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	11
III.2 Langileria.....	12
III.3 Transferentziak eta diru-laguntzak	13
III.4 Kontratazioa.....	14
III.5 Berankortasuna eta bestelako alderdiak	16
IV. FINANTZA ANALISIA.....	17
V. URTEKO KONTUAK.....	20
V.1 Udala	20
V.2 Erakunde autonomoak	23
V.3 Errazten, SA	25
ALEGAZIOAK	27
0. ABREVIATURAS	29
I. INTRODUCCIÓN.....	31
II. OPINIÓN.....	32
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	32
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	33



III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL	
INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	35
III.1 Presupuesto y contabilidad	35
III.2 Personal	36
III.3 Transferencias y subvenciones.....	37
III.4 Contratación	38
III.5 Morosidad y otros aspectos	40
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	41
V. CUENTAS ANUALES	44
V.1 Ayuntamiento	44
V.2 Organismos autónomos.....	47
V.3 Errazten, SA	49
ANEXOS	51
A.1 Presupuesto y sus modificaciones.....	51
A.2 Impuestos, tasas y otros ingresos	52
A.3 Ingresos por transferencias y subvenciones.....	53
A.4 Gastos de personal	55
A.5 Compras de bienes y servicios.....	56
A.6 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas	57
A.7 Pasivos financieros	58
A.8 Deudores presupuestarios y otros saldos del balance de situación.....	58
A.9 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial	59
A.10 Análisis de contratación	60
A.11 Indicadores financieros y presupuestarios	62
ALEGACIONES	63



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

0. LABURDURAK

1/1988 Legea	Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legea
10/2003 FA	10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
1463/2007 ED	1463/2007 ED, Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko 18/2001 Legea garatzen duena.
15/2010 Legea	15/2010 Legea, merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurkako neurriak ezartzeko dena.
2/2012 Legea	2/2012 Legea, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
20/2012 LED	20/2012 EDL, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko neurriei buruzkoa.
3/2011 FA	3/2011 FA, Bizkaiko lurralde historikoaren 2012rako aurrekontuak.
APKLTB	2/2000 Legegintzazko Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateratua.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko zerga
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa.
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EFPL	6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
EIOZ	Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zerga
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
SPKL	30/2007 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuari buruzkoa.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Lekeitioko Udalaren 2012ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren, bere erakunde autonomoen eta Sozietate Publikoaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua, memoria eta aurrekontuen likidazioa.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.

Lekeitioko Udallerriak 7.419 biztanle ditu 2012ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera; bere egituran, Udalaz gain, Kulturaren Udal Erakundea, Kirolaren Udal Erakundea eta Errazten, SA Udal Sozietatea (% 100) besarkatzen ditu; azken honek hirigintza birgaitzeko programak kudeatzen ditu. Zenbait udal zerbitzu Lea Artibaiko Mankomunitatearen (zabor bilketa eta gizarte zerbitzuak) eta Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoaren bitartez (hornidura eta estolderien lehen mailako sareak) ematen ditu. Haurreskolak Partzuergoan ere parte hartzen du eta % 16,7an Lea Artibaiko Garapen Agentzia, SAN (eskualdearen dinamizazio ekonomiko eta enpresariala). Azkenik, alkatea Uribarri-Abaroa Fundazioko lau patroietako bat da; fundazio hau udalerrian dagoen zaharren egoitza baten jabe da.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA (ikus A.4)

1. Udalak 2012an bi langile kontratatu zituen, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gordeko zituen prozesua burutu gabe. Udalak 4 urteko eperako txanda-kontratu bat gauzatu zuen eta beste obra kontratu bat, amaiera datarik gabea, adieraziaz gainetik, dagokion hautaketa-prozesua gauzatu ondoren lanpostua bete arte luzatuko dela.
2. Kirolaren Udal Erakundeak 6 sorosle kontratatu zituen 2012an zehar jasotako curriculumak abiaburu hartuta egindako zerrenda bat baliatuta, publikotasundun deialdirik egin gabe eta aldez aurretik irizpiderik ezarri gabe, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratuta. Txosten hau idatzi dugun datan, kontraturiko bi langilek jardunean segitzen dute Udalak ez duelako aldi baterako lan kontratuak amaitzeko datarik ezarri.

KONTRATAZIOA

3. Bide garbiketa kontratuaren lehiaketa, 771.378 euroan esleitu zena, BAOn soilik argitaratu zen eta ez DOUE eta BOEn, zegokiokeen moduan (SPKLren 126. art.). (C akatsa A.10en).
4. Lorezaintza zerbitzuaren kontratua 2008ko apirilean esleitu zen eta 2012ko maiatzean iraungi zen; ordea, ekitaldi horretako urrira arte egikaritzen jarraitu zuen, 86.317 euroren kostuarekin, publikotasun eta lehia printzipioak urratuz, ez baitzen lehia berria abiarazi (C akatsa A.10en).
5. Ondoko kontratazioak publikotasun eta lehia printzipioak betetzea bermatuko zuten prozedurak baliatu gabe gauzatu ziren:
 - Udalari eta Kirolaren Udal Erakundeari argindarra hornitzeak, hurrenez hurren, 224.911 eta 70.038 euroren kostua ekarri du.
 - Kirolaren Udal Erakundeari gasolioa hornitzeak 2012an 86.367 euroren kostua eragin du.
 - 2012ko abenduan 3 urtetarako esleitutako telefonia zerbitzua, publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez gauzatu zen. Nahiz espedienteak ez duen aurreikusitako kostuaren gaineko balioespenik egiten, zerbitzu honek Udalari dagokionez 2012an 32.633 euroren kostua eragin zuen.
 - Eskola publikoak garbitzeko zerbitzuak, udalaren eskumeneko dena, 88.480 eurorena. Ikasleen guraso elkarteak diru-laguntza izendun modura bideratu zen.



6. San Antolin auzoa urbanizatzeko zaharberitze lanen azken fasea 2011ko ekainean jaso zen. Obra zuzendaritzak gerora jakinarazi zuen, 2011ko azaroan hain zuzen ere, eraikuntza proiektuan aurreikusi gabeko lanak egin zirela, 70.697 euroren balioa zutenak. Gastu hau 2012ko uztailean onartu zuen kontratazio atalak; ordea, gauzatu aurretik baimendu eta aurrekontuan zuzkitu behar zatekeen, eraikuntza proiektuaren gaineko aldaketa bat izategatik.

Epaitegi honen iritzira, aurreko 6 idatz-zatietan azaldutako ez betetzeak alde batera, Lekeitioko Udalak, bere bi Erakunde Autonomoak eta Errazten, SAK zuzentasunez bete dute 2012ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Udalaren 2012ko ekitaldiko aurrekontu likidazioaren sarreren 4. kapituluak itunpeko zergen diru-bilketan Udalak izandako parte-hartzea (Udalkutxa) barne hartzen du; eskubide horiek 4,1 milioi eurorenak dira eta 2012ko ekitaldiaren azken kitapenaren konturako emakidei dagozkie; hor jasotzeko dago ekitaldi horretako kitapen negatiboa, 98.501eurorena, 2013an itzuli beharrekoa. 2009 eta 2011ko likidazio negatiboek 378.244 euroren murrizketak eragin zituzten 2012ko konturako entregetan eta ordaintzeko daude beste 361.271 euro, Udalar 2013 eta 2014an kenduko zaizkionak. Honenbestez, 2012ko abenduaren 31n Udalkutxako likidazio negatiboen kontzeptuan zorpetutako saldoa 459.772 eurorena zen; kopuru hori ez da atxikitako kontuetan barne hartu (ikus A.3 eranskina).

- 1.- Udalak 1997an berrikusi zituen bere ibilgetuaren balorazioak eta urte horretatik aurrera idazpuruetakoko saldo globalak aldatu zituen aurrekontuen kontabilitatean jasotako informazioa baliatuta. Hala eta guztiz ere, ez du ibilgetua eragiten duten eta guztien erabilerakoa den egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez du ibilgetuaren elementu bakoitzeko xehapenik egiten. Berebat, ez da amortizazioen kalkulua ere gaurkotzen, urteko alta eta bajen arabera.



2.- Hona hemen 2012ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta Funts Propioetan eragina duten doiketak:

Eranskina Kontzeptua	Euroak milakotan			
	Aurrekontukoa Diruzaintza geldikina	Ondarekoa Aktiboa	Pasiboa	Funts propioak
12.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
A.2 OHZ eta JEZ: 2013an kitat. 2012ko kobrantzak eta kobratz. ordainagiriak .	171	171	-	171
A.2 2012an zorpetutako likidazioak, aitortu gabe.....	102	102	-	102
A.2 Estolderia eta zaborren tasak, 2011ko3. eta 4. hiruhil.	198	380	-	380
A.8 Zuzkitu gabeko saldoak: 24 hilabetetik gorako antzinatasuna eta beste	(305)	(305)	-	(305)
12.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
A.3 Udalkutxa: 2009, 2011 eta 2012ko likidazioa (2013-14 iraungipena)	-	-	460	(460)
Beste batzuk				
A.3 Ondare kontabilitatean erregistratu gabeko hirigintzako obligazioak	-	-	302	(302)
A.8 Aurrekontuz kanpoko BEZ saldoa erregularizatzea	65	(127)	(192)	65
A.8 Aurrekontuz kanpo erregistratutako aurrerakinaren saldoa erreg.	57	29	(57)	86
GUZTIRA	288	250	513	(263)

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Lekeitioko Udalaren, bere Erakunde Autonomoen eta Errazten SAREN Kontu Orokorrek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2012ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, 2012ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian bere eragiketen emaitzena.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2012ko ekitaldirako aurrekontu orokorra hasiera batean Udaltzakoak 2012ko maiatzaren 17an onetsi zuen; ordea, arautegiak (10/2003 F Aren 15.2 art.) behin-betiko urtea hasi aurretik onestea aurreikusten du.
- Artekariak ez zituen egonkortasun helburuak betetzeari buruzko nahitaezko txostenak egin (1463/2007 EDren 16.2 art.) 2012rako Aurrekontua eta 2011ko Likidazioa izapidetzerakoan, nahiz egin zuen 2012ko Likidazioan.
- Aurrekontua egikaritzeko kontrolak akatsak erakutsi ditu 2012an. Inbertsioei dagokienez, urteko obra nagusia esleitu aurretik krediturik bazegoela egiaztatu zen baina ez dago erasota gainerako inbertsio esanguratsuetan egiaztaketa egin zenik: 3.000 eurotik gorako 18 esleipen, guztira 374.596 euroren zenbatekoan. Egikaritzea arauak (ADO) metatzen uzten du soilik kasu batzuetan (nominak, gastu errepikakorrak, transferentziak, diru-laguntza izendunak, e.a.) eta izaera orokorrarekin 150 eurotik beherako erosketetan; muga hau igo liteke.
- 2012an kontrataturiko 387.612 euroren kreditu kontua, Diputazioari jakinarazi behar zitzaiokeen (3/2011 F Aren 44.9 artikulua).
- Aurrekontukoak ez diren hartzekodunen atal diren behin-betiko bermeen kontua, 71.115 eurorenak, 45.627 euroren antzinako saldoak ditu eta horien eskagarritasuna berrikusi egin behar litzateke.
- Zabor bilketa eta gizarte-ongizate zerbitzuengatik Lea Artibaiko Mankomunitateari egin beharreko transferentzia 171.501 euroan murriztua dago, Udalak ematen duen etxez etxeko zerbitzuari dagozkionak eta BFAk Mankomunitateari diruz laguntzen diona. Udalarari dagozkion foru diru-laguntzak udalaren diru-sarrerara modura erregistratzea komeni da eta mankomunitateko zerbitzuak finantzatzeko ekarpenak osorik. Gainera, ekarpenak zerbitzu orokorren programari esleitzen zaizkio, aipatutako bi zerbitzuei dagozkien programei beharrez.
- Udal talde politikoei egiten zaizkien diru-izendapenak Aurrekontua Egikaritzeko Udala Arauan arautzen dira eta horien zenbatekoa baizik ez da zehazten; ordea, komenigarria litzateke horien norakoa eta hartzaileek bete behar dituzten arauzko betekizunak arautzea.
- Udalaren 2012ko aurrekontuak 288.851 euro "Bestelako hainbat gastu" 22699 azpikontzepturako izendatu zituen, ondasun eta zerbitzu erosketen 2. kapituluaren % 15. Egikaritzea 307.308 eurorena izan zen, aurrekontuko beste aplikazio batzuetan sailkatu behar ziratekeen gastuak barne hartuta. Gastuaren azpikontzeptu hau beste

kontu-sail batzuetan sailka ezin daitezkeen zehar gastuak jasotzeko baliatu behar da. Kulturaren Udal Erakundearen azpikontzeptu honek 2. kapituluko gastuaren % 77 egiten zuen, oker sailkatutako gastuak ere barne hartuta.

- Aurrekontua egikaritzeko arauak Erakundeetako aurrekontu aldaketetarako zuzendaritza-kontseiluaren erabaki-proposamena eskatzen du, 2012an izapidetu zirenetan gauzatu ez zena. Gainera, Kulturaren Udal Erakundearen kreditu osagarri bati, 72.583 eurorena, ez zitzaion zegokion publikotasuna eman BAOn (10/2003 FAre 34. art.).

III.2 LANGILERIA

- 2012ko ekitaldiko aurrekontu plantillak sail bakoitzeko langileria kapituluaren aurreikuspenak xehatu baizik ez zituen egiten, aurreikusitako postuak ere adieraziaz, baina aurrekontuaren aurreikuspenak egiteko aintzat hartutako ordainsari oinarritzko eta osagarrien berri eman gabe. Kirolaren Udal Erakundearen eranskinak aurreikusitako ordainsarien guztizkoa errepikatu baizik ez du egiten, aurreikusitako lanpostu eta ordainsari kopurua xehatu gabe (EFPLren 20 eta 21. artikulua).
- 2011ko uztaila eta iraileko udalbatzaren erabaki bitartez, bi udalkideren dedikazio eskusiboa onartu zen eta horien ordainsariak finkatu ziren. 2012ko maiatzeko beste udalbatza batean hartutako erabakiak batzorde eta osoko bilkuretara joateagatik sariak finkatu zituen. Erabaki hauek guztiak BAOn argitaratu behar ziratekeen (TAOALen 75.5 artikulua).
- 2012ko pertsonalaren altak aztertu ondoren, iraupen laburreko kontratuetarako aldi baterako 4 langile dagokion hautaketa prozesua bideratu gabe kontratatu direla ikusi dugu. Bi kasutan beste udal batzuen lan poltsak baliatu dira; gomendagarria da lan poltsa propioak eratzea.
- 2012rako aurrekontu-araudiak mugatu egiten ditu aldi baterako langileen kontratazioak eta 2/2012 Legearen 23.2 artikulua inguruabarretakoren bat gertatzen dela egiaztatzeko eskatzen du; egiaztapen hori, baina, ez dago aztertutako espedienteetan jaso.
- Udalaren eta bere Erakundearen 2012ko abenduaren 31ko plantillan obra jakin baterako lan kontratua duten iraupen luzeko langileak azaleratu dira:

Erakundea (kontratuen hasiera urtea)	Kopurua Kontratuak
Udala (1999, 2000, 2001, 2002, 2005, 2009).....	9
Kirolaren Udal Erakundea (1999, 2004 eta 2010).....	4
Kulturaren Udal Erakundea (2003).....	1
GUZTIRA	14

Kontratuen iraupenak adierazten du garatutako egitekoek iraunkortasun izaera dutela eta honenbestez, egoera hori zuzendu egin behar da. Honi dagokionez, 2012ko



abenduaren 31n indarrean zeuden Udalaren eta Udal Erakundeen LZko 26 lanpostu hutsik zeuden; hori dela eta, indarreko legediak horretarako bide ematen duen heinean dagozkion hautaketa-prozesuak deitu beharko dira.

- LZk 15 lanpostutan gainditzen du Udalaren aurrekontu plantilla (EFPLren 17. artikulua), izan ere, plantilla horretan funtzionarioek edo lan kontratupeko langile finkoek okupatutako postuak soilik barne hartzen dituzte eta ez aldi baterako langileek okupatutakoak; horiek Langileei buruzko eranskinean jaso dira.

III.3 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- Lea Artibai Garapen Agentzia, SA partaidetutako sozietateari bi diru-laguntza izendun ordaindu zitzaizkion, 33.000 eta 12.000 euroren zenbatekoan; ordainketa horiek, baina, aldez aurretik nahitaezkoa den hitzarmena onartu gabe edo aurrekontuko aurreikuspena garatuko duen ebazpenik gabe egin ziren. Erakunde honetako kide guztiak dira Lea Artibaiko Mankomunitatearen atal, eskualde mailako planteamendua behar duten zerbitzuak kudeatzeko sortutako erakundea, alegia.
- Kirolaren Udal Erakundeak 25.778 euroren laguntzak eman zizkien udalerriko 12 kirol elkarteri urteko jarduerarako eta kirol ekitaldiak antolatzeko, modu zuzenean, dagozkion deialdiak bideratu gabe.
- Kulturaren Udal Erakundearen diru-laguntza guztiak, 116.941 euro 27 onuraduni, kultur eta aisia jardueretarako, izenez esleitu ziren 2012ko Aurrekontuan bertan. Deialdiak banatzeko ohiko prozedura lehiaketa izan ohi da (DLOren 22. artikulua) eta bidera daitekeen guztietan baliatu behar da.
- Kulturaren Udal Erakundearen diru-laguntza izendunak dagokion hitzarmena bideratu gabe eman ziren, edo hori ezean, ezargarriak diren baldintza eta konpromisoak ezarriko dituen ebazpena ebatzi gabe, diru-laguntzen araudiak eta aurrekontua egikaritzeko udal arauak aurreikusten duen moduan. Hiru elkartek aurkeztutako justifikazioa aztertu ondoren, horietako 2tan jaso izanaren agiriak eta diru-laguntzaren norakoa justifikatzen duten beste agiri batzuk aurkeztu direla ikusi dugu; ez dute, ordea, laguntzen % 45a justifikatzeko fakturen arauzko baldintzak betetzen. Azkenik, justifikazio aurreko ordainketak bereizirik erregistratu behar lirateke (ADOJ), egindako aurrerakinak kontrolatzeko, edo bestela, ordainketa aurreratuak laguntzen ehuneko jakin batera mugatu, justifikazioa osatzerakoan azken ordainketa egitea aurreikusita.
- Kulturaren Udal Erakundeak Lekitto Musika Banda elkarteari 14.638 euroren diru-laguntzak eman zizkion musika eskolak emateko eta gainera, Udalak gastuen 2. kapituluaren kontura jai ekitaldietan emanaldiak esleitu zizkion, 39.533 euroren zenbatekoan. Bai eskolak emateko jarduera, bai bandaren emanaldiak elkarrekin lotuak daude eta honenbestez, egokiagoa litzateke konpromiso hauek elkarrearen jarduera multzorako diru-laguntza modura bideratzea. Udalerriko beste 7 elkartek Erakundeari 27.714 euro fakturatu zizkieten udalak diruz lagundutakoen pareko jarduerak egiteagatik, baina kontratu modura bideratu dira aurrekontuaren izenezko diru-izendapenak gainditzeagatik.



- Bost elkartek bi udal erakundeetatik jasotzen dituzte laguntzak, izan ere, Kulturaren Udal Erakundeak hainbat kirol jarduera laguntzen ditu diruz; komenigarria da bi esparruak mugatzea (ikus A.6).

III.4 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 5 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalerau zaizkigu (ikus A.10):

- Guztira 1,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutako lau kontraturen espedienteek (1, 2, 3 eta 4. espedienteak) ez zuten kontratuaren beharra arrazoituko zuen txosten derrigorrezkoa, krediturik bazegoelako ziurtagiria eta pleguei buruzko txosten juridikoa. Gainera, hiru lehenengoetan, 1,7 milioi euroan esleitutakoak, ez da ageri kontratazio mahaiko kideen izendapena eta geroko osaeran urratu egiten dute gutxienez 3 bokal izateko baldintza (A1 akatsa).
- Guztira 1,7 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 3 kontraturen pleguek (2, 3 eta 5 espedienteak) merkatzeko ehuneko batetik behera eskaintza ekonomikoenak zigortzen dituzten formula aritmetikoak barne hartzen dituzte (A2 akatsa).
- 3 kontratutan (2, 2 eta 3 zk. espedienteak), guztira 1,7 milioi euroan esleitutakoak, esleipen irizpide modura balioztatu ziren enpresaren kalitate ziurtagiriak eta enpresaren eskarmentua; baita, giza eta gauzazko baliabideak ere; horiek guztiak, ordea, esleipen irizpide soilik izan daitezke baldin eta horien beharra justifikatzen bada eta pleguetan jasotako kaudimen baldintza gutxienekoak gainditzen badira (A3 akatsa).
- Aztertutako 5 kontraturen pleguek irizpide orokorrak barne hartzen zituzten, balioztatzeokoak ziren alderdi zehatz eta objektibagarriak zehaztu gabe, ez eta baliatu behar zuten balorazio sistema ere. Kasu guztietan balioztatzen dira hobekuntzak (10 eta 20 puntu bitartean), baita zerbitzu edo obraren antolamenduari buruzko memoria baten kalitatea ere, puntuatuko diren alderdi zehatzak adierazi gabe (A4 akatsa).
- Bi kasutan (2 eta 4 espedienteak) balio judizioa eskatzen zuten irizpideek formula bat abiaburu hartuta kalkulatu diren haiek baino garrantzia handiagoa zuten, halako kasuetan adituen batzordea eratzeko, edota berariaz gaitutako erakunde tekniko baten parte-hartzea eskatuz, pleguek aurreikusten ez dutena (A5 akatsa).
- Hiru esleipenen txosten teknikoek (1, 2 eta 3 espedienteak), 1,7 milioi euro egin zutenak, puntuazio xeheak barne hartzen zituzten, baina ez dira horiek justifikatzen, pleguaren irizpideekin lotuaz edo txostena idatzi duenak garatutako azpi-irizpideekin (A6 akatsa).
- 4 espedientetan (2, 3, 4 eta 5 zk.), 1,9 milioi euroren esleipena egiten zutenak, lehiatzaileei esleipenak jakinarazi zitzaizkien, baina ez zitzaien nahitaezkoa den publikotasuna eman aldizkari ofizialetan (B1 akatsa).
- Esleipen hartzaileei eskatutako bermeak 3 kasutan (1, 2 eta 3 espedienteak) kontratuaren urtekoa oinarri hartuta kalkulatu ziren, esleipenaren guztizko zenbatekoa hartu beharrean, 1,7 milioi euro (B2 akatsa).



- Kontratuak aldatu eta luzatzeko ebazpenek aldez aurretik sustatzailearen aldetik dagokion proposamena egitea, kontratugileari jakinaraztea eta artekariaren txostena eskatzen dute. Aldaketetarako, gainera, beharrezkoa da idazkariaren txostena eta dagokion kontratua gauzatu behar da eta bermea berregokitu. Guztira 1,9 milioi euroan egindako esleipenei zegozkien lau kontratutan (1, 2, 3 eta 4 zk.), aldaketa eta luzapenak egin zitzaizkienak, betekizun hauetakoren bat urratu zen (B3 akatsa).
- Bide garbiketa kontratuan, 771.378 euroan esleitutakoa, balio judizioa eskatzen zuten esleipen irizpideak eta formula bidez kalkulatzeko zirenak aldi berean balioztatu ziren (SPKLren 134 artikulua) (C akatsa).
- Lorezaintza zerbitzua, 379.246 euroan esleitutakoa, aurrekontua ezarri gabe lehiatu zen (APKLTBren 11.2 art.). Akats honetatik eratortzen da lehiatzaileei sailkapena egiaztatzeke ez eskatzea, nahiz azken esleipenak legezko mugak gainditu dituen (APKLTBren 25. art.). Gainera, prezio faktorea balioztatzen zuen formula aurrekontua abiaburu hartuta kalkulatzeko zen eta aurrekonturik ez zegoenez, beste formulazio bat baliatzea erabaki zen (C akatsa).
- 4 zk. kontratuaren pleguak, 144.850 euroan esleitutakoa, 14,5 hilabetez ezarri zuen kontratuaren iraupena eta 4 urte arteko luzapenak, araudiak luzapenetarako ezarritako denborazko epea gaindituz (SPKLren 279 artikulua), 2012an kontratuaren kostua 144.409 euroa izan zelarik (C akatsa).
- Obra kontratua, 585.865 euroan esleitu zena, premiaz izapidetu beharrekotzat jo zen 2012ko irailean, horretarako justifikazio egokirik izan gabe. Gainera, azken ziurtagirian 25.075 euroren obra unitate berriak barne hartu ziren, aldaketa modura izapidetu behar ziratekeenak. Azkenik, kontratugileak eskaintzan 159.051 euroan balioztaturiko hobekuntzak aurkeztu zituen; komenigarria zatekeen hobekuntza horien gaineko jarraipena obraren hileko ziurtagiriei txertatzea (C akatsa).

Erosketa txikiak berrikustean lau kontratazio zuzen azaleratu dira, guztira 188.929 eurorenak, kopurua aintzat hartuta publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeenak. Gorabehera hau bera gertatu da Kirolaren Udal Erakundearen bi esleipenetan eta Kulturaren Udal Erakundearen beste bitan, hurrenez hurren, 57.201 eta 82.046 eurorenak (ikus A.10).

Udalaren beste 3 zerbitzutan, ekitaldian guztira 83.393 euroren kostua eragin dutenak, prestazioak arautzen zituzten kontratuak gaindituak zituzten indarraldi epeak 2010 eta 2011n (ikus A.10).

Udalak Lea Artibaiko Garapen Agentzia, SARI turismoko udal bulegoa eta loturiko beste zerbitzu batzuen kudeaketa agindu zion, 2012ko urtean 157.402 euroren kostua izan zuena. Zerbitzu hauetakoz batzuetan, 113.273 eurorenak, ez da dagokion mandatua gauzatu. Sei udaletzek sortutako sozietate horren xede soziala zabala da, baina eskualde guztia besarkatuko duten jardueren egiten die aipamen eta sozietateak ez du estatutuetan berariaz



jaso sozietateak duen berezko baliabide izaeraren aitortpena (SPKLren 24.6 artikulua). Egoera hau zuzentzeko, 2013an Udalak zerbitzua lizitatzea erabaki zuen eta enpresa pribatu bati esleitu zion.

III.5 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- Aztertutako bost kontratazio espedienteetan egindako ordainketak aztertzean ikusi da urratu egin dela araudiak ordainketak egiteko ezartzen duen 40 eguneko epea (15/2010 Legearen 3. artikulua), 696.976 euroren ordainketatan, azertu diren guztien % 50a egiten dutenak. Gainera, ez dira ordainketa epeak betetzeari dagokionez nahitaezkoak diren hiruhileko txostenak egin Udaltzarentzat.
- Estolderia eta zabor bilketa tasen hiruhileko erroldak formalki onartu behar lirateke eta jendaurrean erakutsi (9/2005 FAren 27. artikulua). Berebat, horretarako eskumena duen atalak HILBIZaren likidazioak onartu behar lituzke. Azkenik, gidatutako bisitaldien kontzeptuan prezio publikoa finantzatzen duen diru-sarrera, 33.590 euro 2012an, Udaltzarak onartu behar luke.
- Zergen kontzeptuan kobratu beharreko saldoen xehapenak ez datoz bat derrigorrezko bidean diru-bilketa kudeaketan laguntzen duen sozietateak emandakoekin; horiek azertu eta zuzentzea komeniko litzateke.
- Udal diru-sarrerak arautzen dituen ordenantzak Kirolaren Udal Erakundeak emandako ikastaro guztiak barne hartu behar ditu. Alabaina, 2012an indarrean zegoen ordenantzan aurreikusi gabe zeuden zazpi ikastarori zegozkion 22.771 euro ingresatu dira.



IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2010(*)	2011(*)	2012	2010	2011	2012
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	2.589	2.577	2.540	348	348	342
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (kap. 4).....	4.583	4.613	4.294	616	623	579
Ondare sarrerak (5. kap.).....	67	70	64	9	9	9
A. Diru-sarrera arruntak	7.239	7.260	6.898	974	980	930
Langile gastuak (1.kap.).....	2.497	2.448	2.328	336	330	314
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	1.890	2.195	2.224	254	296	300
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	1.535	1.447	1.470	206	195	198
B. Funtzionamendu gastuak	5.922	6.091	6.022	796	822	812
Aurrezki gordina (A-B)	1.317	1.169	876	177	158	118
- Finantza gastuak (3. kap.).....	77	110	113	10	15	15
Eraitza arrunta	1.240	1.059	763	167	143	103
-Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	454	531	745	61	72	100
Aurrezki garbia	786	528	18	106	71	2
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	1.094	125	62	147	17	8
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	1.612	347	387	217	47	52
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	4.169	2.148	999	561	290	135
- Kapital transf. eta diru-lag. (7. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Kapitaleko eragiketen eraitza	(1.463)	(1.676)	(550)	(197)	(226)	(74)
Eragiketa ez finantzarioen eraitza (1etik 7rako kap.)	(223)	(615)	213	(30)	(83)	29
Diruzaintza Geldikin Likidoa	1.476	862	364	198	116	49
Zorpetzea 12/31n	4.665	4.852	4.495	627	655	606

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: Bere horretan eutsi diote 2011n eta 0,4 milioi egin dute behera 2012an, zerga sarreretan bariazio txiki batzuekin (1etik 3ra bitarteko kapituluak); murrizketa beste administrazio batzuetatik datozenetan gertatu da (4. kapitulua).

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** Tasek igoera txikiak izan dituzte 2011n (% 1,8) eta 2012an (% 3), zergetan bezalaxe. Aztertutako aldian HILBIZaren diru-sarreraren igoera nabarmentzen da, zergaren kudeaketan izandako hobekuntzen ondorioz, eta EIOZaren beherapena, eraikuntzak izan duen jarduera txikiagoaren ondorioz.
- **Transferentziak eta diru laguntzak:** osagarri nagusiak, itunpeko zergetan partaidetza, behera egin du 2009 eta 2011ko likidazio negatiboen ondorioz eta diru-bilketa aurreikuspenetan izan den murrizketaren ondorioz. Diru-laguntza arruntei dagokienez, horiek ere behera egin dute 2012an.



Funtzionamendu gastuak: 0,1 milioi egin dute gora 2010 eta 2011 bitartean, egonkor eutsi diotela.

- **Langile gastuak:** 0,1 milioi egin dute behera, 2011ko soldata izoztearen ondorioz eta hirurteko azken urtean ordainsariak beheratu izanaren ondorioz.
- **Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak:** 2012an 0,3 milioi egin dute gora, argindarraren horniduran gastuen igoerak eta turismoa sustatzeko programa berrien igoerak eraginda.
- **Transferentziak eta diru laguntzak:** osagai nagusiak, mendeko erakundeei eta Mankomunitateari ekarpenak, beheraldi txikia izan du, Errazten, SAK eta Kirolaren Udal Erakundeak eragindakoa. Beste erakunde batzuei eman beharreko diru-laguntzek ere zertxobait behera egin dute.

Aurrezki gordina: 1,3 milioi eurotik 0,9 milioi eurora jaitsi da 2010 eta 2012 bitartean, osagaietan izandako bariazioen ondorioz, jada xehatu direnak. Beherapenaren arrazoi nagusia itunpeko zergetan diru-bilketak behera egin izana da.

Aurrezki garbia eta zorpetzea: Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. finantza zama gehitu egin da 2009an kontrataturiko maileguaren amortizazioak txertatu ondoren eta eragiketa arrunten emaitzak murriztu egin dira; horrek oreka ekarri du, baina ez da gelditzen inbertitzeko finantzaketarik. Zorpetzeari dagokionez, kopuruak sarrera arrunten % 65 egiten du eta % 72raino igotzen da aintzat hartuz gero Udalkutxako likidazio negatiboek eragindakoa zorra, 459.772 euro, 2013 eta 2014an ordaindu beharrekoak.

Kapital eragiketen emaitza: Aztertutako aldian inbertsio ahalegina handia izan da, 7,3 milioi euro, partzialki (% 50) diru-laguntzekin eta aktiboen salmenta bidez finantzatu dena.

Diruzaintza geldikina: Geldikina inbertsioetarako baliatu da 1,1 milioi murriztuta eta 0,4 milioi euroren zenbatekoa geratu da, 0,3 milioi euroan gehituko litzatekeena fiskalizazioan azaleratutako doiketen ondorioa aintzat hartuz gero.

Ondorioa: Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa. Sortutako aurrezki garbia nabarmen murriztu da itunpeko zergen diru-bilketak behera egin izanaren ondorioz; zerbitzu kostuei, berriz, bere horretan eutsi zaie; itunpeko zergetan toki administrazio guztiek hartzen dute esku. Aztergai izan dugun hirurtekoan Udalak inbertsio programak emaitza arruntekin, diru-laguntzekin eta mailegu zein



geldikinerako bidea baliatuta finantzatu ditu. Geldikinak kopuru txikia erakutsi du aztergai izan dugun aldi amaieran eta zorpetze-maila esanguratsutzat hartu behar da. Horregatik guztiagatik udal zerbitzuetan egiten diren inbertsioak beste erakunde batzuen diru-laguntza bidez eta autofinantzaketa bidez soilik finantza daitezke; horrek zerbitzuen maila eta/edo kostuen gainean aritzea eskatzen du.

2013rako aurrekontuak sarrera eta gastu arruntak antzeko ehunekoetan murrizten ditu (% 3) eta honenbestez, 2012ko aurrezki gordinaren mailari eusten dio; aurrezki hori zorra amortizatzeko baliatuko da, izan ere, aurreikusitako inbertsio txikienak ere % 84an inbertsioak besterentzetik eskuratutako diru-sarrera bidez finantzatzen dira.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2012-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE.		KOB.R.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.	
1.- Zerga zuzenak	A.2	1.326	10	1.336	1.332	1.267	65	100	
2.- Zeharkako zergak	A.2	100	-	100	126	98	28	126	
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.2	1.062	53	1.115	1.082	1.075	7	97	
4.- Transferentzia eta diru-lag. arrunt...	A.3	4.226	52	4.278	4.294	4.279	15	100	
5.- Ondare sarrerak		65	5	70	64	64	-	92	
6.- Inbertsio errealen besterentzea		21	-	21	62	62	-	300	
7.- Kapital transf. eta diru-lag.	A.3	482	37	519	387	3	384	75	
8.- Finantza aktiboak		0	869	869	3	3	-	(*)-	
9.- Finantza pasiboak		1.004	-	1.004	-	-	-	-	
SARRERAK GUZTIRA		8.286	1.026	9.312	7.350	6.851	499	(*)87	

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.		ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.	
1.- Langileria-gastuak	A.4	2.595	(144)	2.451	2.328	2.328	-	95	
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb...	A.5	1.952	366	2.318	2.224	1.836	388	96	
3.- Finantza gastuak		134	(21)	113	113	112	1	100	
4.- Transferentzia eta diru-lag. arrunt...	A.6	1.346	162	1.508	1.470	1.388	82	98	
6.- Inbertsio errealak		1.519	654	2.173	999	892	107	46	
7.- Kapitalezko transf. eta diru-lag.		-	-	-	-	-	-	-	
8.- Finantza aktiboak		-	4	4	3	3	-	90	
9.- Finantza pasiboak	A.7	740	5	745	745	745	-	100	
GASTUAK GUZTIRA		8.286	1.026	9.312	7.882	7.304	578	85	
SARRERAK - GASTUAK		-	-	-	(532)	(453)			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	KOB.R./		AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	
Zordunak	(A.8)	1.030	-	629	401
Hartzekodunak		1.657	-	1.414	243
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA		(627)		(785)	159



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....	7.350
Aitortutako obligazioak.....	7.882
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA	(532)
AURREKO EKITALDIETAKO KITATUTAKO AURREK. ERAGIKETEN EMAITZA	-
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	(532)
Finantzaketa desbideratzeak	57
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	356
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	(119)

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina 2012/1/1ean	862
Aurrekontuaren emaitza	(532)
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldatetak	34
Sarrerren itzulketeng. eta beste hartzekod. bariaz.	-
DIRUZAINZA GELDIKINA 2012/12/31-N	364
Diruzaintza	774
Aurrekontuko zordunak..... (A.8)	900
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	359
Aurrekontuzko hartzekodunak.....	(821)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(727)
Aplikatzeko dauden sarrerak.....	(90)
Kaudimen-gabez. zuzkidura..... (A.8)	(31)
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2012.12.31-N	364
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako diruzaintza geldikina..... (A.3)	(430)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA	(66)
ZORPETZEA 2012/12/31-N	(A.7) 4.495



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2012 ETA 2011-KO ABENDUAREN 31-N				Euroak milakotan			
AKTIBOA	ERANSK.	2012	2011	PASIBOA	ERANSK.	2012	2011
IBILGETUA		48.628	48.522	FUNTS PROPIOAK		44.885	44.533
Erabilera orokorrera emana.....		32.258	31.521	Ondarea		16.964	16.964
Ibilgetu ezmateriala.....		1.548	1.434	Atxiki eta lagatako ondarea		-	-
Ibilgetu materiala		14.747	15.552	Aurreko ekitaldietako emaitza.....		27.629	27.237
Ibilgetu finantzarioa		75	15	Ekitaldiaren emaitza.....		292	332
ZORDUNAK	A.8	1.078	1.175	HARTZEKODUNAK EPE LUZERA		4.107	4.852
Indarreko ekitaldiaren aurrek.		499	-	Beste zor batzuk	A.7	4.107	4.852
Ekitaldi itxien aurrek.....		401	1.030	HARTZEKOD. EPE LABURRERA		1.650	1.148
Entitate publiko zordunak.....		201	201	Indarreko ekitaldiaren aurrek.		578	-
Askotariko zordunak.....		8	9	Ekitaldi itxien aurrek.....		243	725
Kaudimengabez. zuzkid.....		(31)	(65)	Epe laburreko maileguak.....	A.7	388	-
FINANTZA-KONTUAK		936	836	Entitate publiko hartzekodunak	A.8	258	242
Aldi bateko finan. inberts.....		150	-	Jasotako bermeak eta gordailuak		86	89
Diruzaintza		774	783	Aplikatzeko dauden sarrerak.....	A.8	90	84
Aplikatzeko dauden ordainketak.		12	53	Bestelako txikiago batzuk.....		7	8
AKTIBOA GUZTIRA		50.642	50.533	PASIBOA GUZTIRA		50.642	50.533

2012 ETA 2011-KO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK				Euroak milakotan	
GASTUAK	2012	2011	SARRERAK	2012	2011
Langileria-gastuak.....(A.4)	2.348	2.496	Negozio zifr. zenbateko garbia ..(A.2)	885	902
Kaudimengab. zuzkid. aldak.(A.8)	(34)	25	Zerga zuzenak	1.332	1.335
Ibilgetua amortizatzeko zuzkidura.....	891	891	Zeharkako zergak	126	108
Tributuak	-	1	Jasotako transf. eta diru-lag.(A.3)	4.681	4.961
Kanpoko zerbitzuak	2.204	2.146	Kudeaketa arrunteko bestel. sarr.	259	298
Emandako transf. eta dirul.(A.6)	1.470	1.447			
USTIAKETA MOZKINA	403	598			
Finantza gastuak.....	113	109	Finantza sarrerak	2	3
FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK	(111)	(106)			
AURREKO EKITALDIETAKO MOZKINAK	-	-	AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK	-	160
APARTEKO EMAITZAK	-	-			
EKITALDIKO MOZKINA	293	332			



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK

2012-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	KIROLA			KULTURA			
	ERANSK.	HAS.AURR.	AZKEN AURR.	DIRU-SARR.	HAS.AURR.	AZKEN AURR.	DIRU-SARR.
3.- Tasak eta bestelako sarrerak		399	399	392	14	27	15
4.- Transferentzia arruntak.....	A.3	339	339	339	531	603	603
8.- Finantza aktiboak		-	-	-	-	73	-
SARRERAK GUZTIRA		738	738	731	545	703	618

Euroak milakotan

GASTUAK	KIROLA			KULTURA			
	ERANSK.	HAS.AURR.	AZKEN AURR.	GASTUA	HAS.AURR.	AZKEN AURR.	GASTUA
1.- Langileria-gastuak.....	A.4	338	319	303	149	149	141
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb...	A.5	315	334	330	247	401	387
4.- Transferentzia arruntak.....	A.6	30	30	26	143	143	117
6.- Inbertsio errealak		-	-	-	6	10	8
GASTUAK GUZTIRA		683	683	659	545	703	653
SARRERAK - GASTUAK		(*)55	55	72	-	-	(35)

(*) Geldikin negatiboak erregularizatzeko superabita duen aurrekontua

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

	KIROLA	KULTURA
AURREK.ARRUNTAREN AURREKONTU EMAITZA	72	(35)
AURREKO EKITALDIEN AURREKONTU EMAITZA	-	-
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	72	(35)
Diruzaintza geldikinarekin finantzaturako gastuak	-	62
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	72	27

DIRUZAINZA GELDIKINA

Euroak milakotan

	KIROLA	KULTURA
Diruzaintza	41	44
Aurrekontuko zordunak.....	-	83
Aurrekontuz kanpoko zordunak	1	1
Aurrekontuzko hartzekodunak.....	(15)	(67)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(11)	(23)
Kaudimengabez. zuzkid.	-	-
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2012.12.31-N	16	38
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako diruzaintza geldikina.....	16	7
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	-	31
ZORPETZEA (12.12.31)	-	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

